



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

**PRENTSARAKO OHARRA**

2016/11/18

**Bizkaiak "bere konpromisoak beteteko" eta Saratxo parean Urduñako A-625 errepidearen trazaua aldatzeko eskatu deutso Arabari**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko Foru Aldundiagaz sinatutako hitzarmena beteteko eskatu deutesie gaur Arabako Foru aldundiari, Urduñarako bidean Arabako lurraldean sartzean Saratxo auzotik igaroten dan A-625 errepideari jagokonez. Bizkaiko Talde Popularraren arauz besteko proposamen bat zuzentzera etorri dan EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen zuzenketa-eske baten bitartez, Bizkaiko Batzarrek "eskaria egiten deutesie" Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Sailari, "Arabako Foru aldundiak, Zugatx Malatoaren alkarlanerako hitzarmenean, A-625 errepideari jagokonez, hartu ebazan konpromisoen gauzatze mailaren aurrean interesa erakutsi daian". Batzarretako talde guztiek onartu dabe testua, abstenidu egin dan Podemos Bizkaiak izan ezik.

Batzordean aitatu danez, Araba eta Bizkaia urte hasieratik dabilz alkartzen, lurraldeetako mugatan dagozan errepideetako arazoei konponbideak bilatzeko. Bilera horreetako batean, Aldundi biek, 2017an Zugatx Malatoaren Hitzarmena "aztertzea eta eguneratzea" erabagi eben. 1986an sinatu zan eta 1996an aldaketak jaso ebazan akordio horrek, N-625 errepide zaharrean, euren eskumenak betez, erakunde bakotzak aurrera eroan beharreko proiektuak eta obrak ezarten ditu, eta baita horreek gauzatzeko epeak be. Helburua, oraindino egin barik dagozan jarduketak eta hobekuntzako lanak hasteko aurreikusten diran epeak zehaztea da.

Bizkaiak bete ditu daborduko errepideari behin betiko konponbidea emoteko hartu ebazan konpromisoak, garai haretako pezetan "800 milioikoa" izan zan ekarpen ekonomikoaren bitartez, hainbat bozeroalek adierazo dabenez. Arabak, barriz, "ez ditu oraindino bere konpromisoak bete". Bizkaiko Aldundiak "trazau barria" eregiteko "ordaindu eban", Arabak "aspaldi egin behar ebazan lanak" egiteko, hain zuzen be, PPko Jesús Iasak esan dauenez. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek errazoia emon deutesie, baina kritikau egin dabe popularrak izatea hobekuntza hori eskatzen dabenak, Arabako Foru Aldundian hainbat urtez agintean egon dira eta.

EH Bilduko lerroetatik, Mikel Kormenzana urduñarrak esfortzu "berezia" eskatu dau, Urduña eta Saratxo arteko trazaua legealdi honetan egin daiten. Bere berbetan, Urduñak urteak daroaz "hildako asko eta ehunka ezusteko, Bizkaibuseko autobusen istripuak barne" eragin dituan trazau "bihurgunetsua eta arriskutsua" jasaten. Batzarkide abertzalearen eretxiz, errepide horrek asko moteltzen ditu "uriaren" garapena eta Bizkaiko Foru Aldundiak ekonomia bizibarritzeko egindako inbertsinoak. Enpresak "ez doaz industrigune barrira, bertara joateko bideak txarrak eta estuak diralako", esan dau.

Podemos Bizkaia izan da abstenidu dan Batzarretako talde bakarra, ez dalako ados egon aukeratutako tresneagaz: arauz besteko proposamena. "Aldundiaren agerraldia eskatu eitekean", hitzarmenak "jarraipena egitera behartzen dauelako" Foru Gobernua, Neskutz Rodríguez bozeroaleak azaldu dauenez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## BIZKAIA PELOTALEKUAREN FATXADA “OSOA” ALDATU BEHAR

Berak eskatuta batzordean egin dauen agerraldian, Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapeneko foru diputatuak Bizkaia pelotalekuaren fatxadaren egoerearen barri emon dau, eta, iragarri dauenez, higiezinaren estaldura “osoa” aldatu beharko da, akatsak hauteman diralako plakak aukeratzean eta baita horreen ainguraketa sistemea aukeratzean be. Obrek “1,5 milioi euroko” kostua izango dabe, eta, aurreikusten denez, “2017ko udaren bukaeran” amaituko dira.

Arazoen lehenengo sintomak “2015eko abenduaren 7an” hauteman ziran, Pradalesek esan dauenez, egun horretan erorketak gertatu ziralako fatxadan. Azpiegiturak erakundeak hainbat azterlan agindu ebazan, eta azterlan horreetan ikusi zanez, beharrezkoa zan jarduketa “orokorra” egitea, “etorkizunean arriskuak saihesteko”, Pradalesek esan dauenez. Orain denpora gitxi esleitu deutso Aldundiak eraikuntza proiektuaren idazketea Idom ingeniarietza etxeari “54.000 euroren” truke, eta “urtarrilean” jasotea aurreikusten dau. Une horretatik aurrera, aurreikuspenak beteten badira “5 hilebete” iraungo dituan eta “1,5 milioi euroko” kostua izango dauen lana lizitauko da.

Oinarrian, proiektu irabazleak, arinagoak eta eguraldiaren gorabeheren aurrean erresistenteagoak izan beharko diran zelulosa zuntzeko plakak izango dituan fatxada aireztatu sistemea izan beharko dau. Pradalesek azaldu dauenez, holan, “energiaren ikuspegitik eraginkorragoa izango dan” fatxadea lortuko da.

Diputatuak esan dauenez, obrek ez dabe eragin negatiborik izango bertan egingo diran kirol jardueretan, eta Aldundiak “kostu guztiak” eskatuko deutsez hautemandako akatsen ardurea daukien enpresei, bere egunean lanak egin ebezan enpresei, hain zuzen be. Izan be, kanpoko txosten biek argi eta garbi erakusten dabe arazoak materialaren aukeraketa txarraren eta ainguraketa sisteman dagozan arazoen ondorioz sortu dirala.

Pradalesek azpimarratu dauenez, une honetan fatxadak ez dau ezelango arriskurik pertsonentzat, “lehenengo minututik” plakak aseguretako beharrak egin ziralako eta segurtasuneko aldamiobiserea jarri zalako.

## MILIOI 2 MECÁNICA DE LA PEÑAKO TORREAN

Mecánica de La Peña (Urduliz) enpresea izandakoaren eraikinean inbertsinoa egin behar dala be iragarri dau Diputatuak. EH Bilduren eskariaren erantzunez, Pradalesek baieztu egin dau Sprilur eta Azpiegiturak erakundeen partaidetzea daukan Urdulizko Industrialdeak “2015. urtearen bukaeran” esleitu ebala bulegoen eraikinaren lanen lehenengo fasea, milioi bi euro baino apur bat gehiagorengaitik. Lan horreek “garagarrilaren bukaeran” hasi ziran, eta aurreikuspenak beteten badira, “2017ko udan” bukatuko dira.

Lan horreetan fatxadea, teilatua, kanpoko urbanizazioa eta elementu komunak barriztauko dira, eta eraikinaren 4. solairua egokitu egingo da, lanak bukatu eta gero bulego “pilotuak” erakutsi ahal izateko. Pradalesek adierazo dauenez, enpresen okupazioaren gainean dagozan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

aurreikuspenak beteten badira –“eskari zehatzak dagoz”–, eraikina barrutik barriztetako bigarren fasea hasiko da, “baina ez 2017. urtearen bukaerea baino lehen”. Bigarren fase horrek beste 3 milioi euroko inbertsinoa eskatuko leuke.

**BIZKAI AK EZ DAU BERE HONDAKINEN PLANA BETEKO, TMB-REN GREBEA DALA ETA**

TMB Arraiz ABEEko lantaldeak sei hilebete baino gehiagoz egin dauen grebea dala eta, aurton 2015ean baino heren bat hondakin gitxiago tratatuko da. Holan azaldu dau Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak, berak eskatuta Batzar Nagusien aurrean egin dauen agerraldian. Agerraldi berean adierazo dauenez, greba hori dala eta, sei hilebete baino apur bat gehiagotan bete ahal izan da isurketa gordin zero helburua.

Grebak iraun dituan hilebeteetan, eta lantegia bere jarduera osoan barriro hasi arte, – zemendiaren 2an gertatu zan hori–, 64.246 tona hondakin beste leku batzuetara eroan behar izan dira. Horreetatik 54.904 tona Jatako hondakindegira eroan dira, eta gainerako 9.341 tonak Zabalgarbira. Aurreikuspenak beteten badira, aurton 112.167 tona tratatuko dira TMBn, eta igaz 176.000 tona izan ziran planta horretan tratatutakoak. Horrek erakusten dauenez, aurton, 2015ean baino “heren bat hondakin gitxiago” tratatuko da.

**ZEHAPENAK GOGORTZEA “IDI PROBETAN”**

Unzuetak, herri kiroleko probetan erabilten diran animalien osasuna eta ongizatea kontrolatuko abuztuaren 23ko Foru Dekretu barriaren gaineko azalpenak be emon ditu. Dekretu horrek hainbat aldaketa “azpimarragarri” sartzen ditu, diputatuak esan dauenez, “idi probetan” parte hartzen daberen animalientzako erregistro berezia, besteak beste, aginte gehiago emoten deutso kantzako epaileari eta kirol jarduerarik bako sei hilebeteko epealdia ezarten dau kontsumora bideratu gura diran animalientzat. Horrez gain, dekretuak dopinaren kontrako kontrolak “indartu” eta zehapenak “gogortu” egiten ditu. “Asmoak kentzeko” neurri moduan, kirol probetan aritzea “4 urtera arte” debekauko jake dopautako animaliakaz lehiatzen diran ustiapenei.

Oposizinoak dekretu horrek eraginik izan ete dauen galdetuta, Unzuetak denpora “gehiago” eskatu dau balorazioa egiteko, baina daborduko ustiapen batzuen “kautelazko geldialdiak” agindu dirala onartu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

**NOTA DE PRENSA**

18/11/2016

## **Bizkaia pide a Araba que "cumpla sus compromisos" y cambie el trazado de la carretera A-625 de Orduña a la altura de Saratxo**

Las Juntas Generales de Bizkaia han pedido hoy a la Diputación foral de Álava que cumpla el convenio firmado con el Ejecutivo vizcaíno en referencia a la situación de la carretera A-625 a su paso por el barrio de Saratxo, recorrido que se interna en territorio alavés hacia Orduña. A través de una enmienda de los grupos PNV y PSE-EE, que corregía una proposición no de norma del grupo Popular, la Cámara vizcaína "insta" al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de Bizkaia a "interesarse por el grado de ejecución de los compromisos adquiridos por la Diputación Foral de Álava en el convenio de colaboración del Árbol Malato referentes a la carretera A-625". El texto ha sido apoyado por todos los grupos de la Cámara, a excepción de Podemos Bizkaia que se ha abstenido.

Según ha trascendido en la comisión, Álava y Bizkaia vienen reuniéndose desde principios de año para buscar distintas soluciones a problemáticas que existen en carreteras de sus límites territoriales. En una de estas reuniones, los dos ejecutivos acordaron proceder a lo largo de 2017 a la "revisión y actualización" del Convenio del Árbol Malato. Este acuerdo, suscrito en 1986 y modificado después en 1996, establece los proyectos y obras que ambas instituciones se comprometieron a llevar a cabo en el ejercicio de sus competencias en la antigua carretera N-625, así como los plazos de ejecución. Se trata de concretar las actuaciones pendientes y los plazos previstos para iniciar obras de mejora.

Mientras que Bizkaia ha cumplido ya con sus compromisos para dar una solución definitiva a la carretera mediante una aportación económica que alcanzó los "800 millones" de las antiguas pesetas, según han manifestado varios portavoces, Alava "no ha cumplido aún sus compromisos". La Diputación vizcaína "pagó" para que se hiciera un "nuevo trazado", que el territorio vecino "tenía que haber hecho hace tiempo", ha sostenido Jesús Isasi, del PP. Desde las filas del PNV y del PSE-EE le han dado la razón pero han criticado que sean precisamente los populares quienes ahora soliciten esta mejora, cuando han gobernado durante años la Diputación alavesa.

Desde las filas de EH Bildu, el orduñés Mikel Kormenzana, ha pedido un esfuerzo "especial" para que el cambio de trazado entre Orduña y Saratxo se haga en esta legislatura. Orduña, según él, lleva años arrastrando un trazado "sinuoso y peligroso" que ha causado "decenas de muertos y cientos de sustos, hasta siniestros en Bizkaibus". El juntero abertzale cree que esta carretera supone un "frenazo" al desarrollo de la "ciudad" y a las inversiones realizadas por la Diputación vizcaína en materia de reactivación económica. Las empresas "no van al nuevo polígono porque hay accesos malos y estrechos", ha apuntado.

Podemos Bizkaia ha sido el único grupo de la Cámara que se ha abstenido al no estar de acuerdo con la herramienta elegida: una proposición no de norma. "Podría haberse pedido una



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

comparecencia de la Diputación”, ya que el convenio “obliga” al Gobierno foral a hacer un “seguimiento”, ha explicado su portavoz Neskutz Rodríguez.

## SUSTITUCIÓN DE “TODO” EL REVESTIMIENTO DE LA FACHADA DEL FRONTÓN BIZKAIA

En una comparecencia a petición propia en la misma comisión, el Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha informado de la situación de la fachada del frontón Bizkaia y ha anunciado que será necesario cambiar “todo” el revestimiento del inmueble al detectarse fallos en la elección de las placas y en su sistema de anclaje. Las obras tendrán un coste de “1,5 millones de euros” y se espera que finalicen “a finales de verano de 2017”.

Los primeros síntomas de las anomalías se detectaron el “7 de diciembre de 2015”, ha relatado Pradales, cuando se produjeron varios desprendimientos en la fachada. Azpiegiturak encargó entonces varios estudios que certificaron más tarde que era necesaria una actuación “global para evitar riesgos en el futuro”, ha señalado Pradales. La Diputación ha adjudicado recientemente el proyecto constructivo a la ingeniería Idom por “54.000 euros” y espera contar con él “en enero”. A partir de ese momento, se licitará una obra que prevé dure “5 meses” y que tendrá un coste de “1,5 millones de euros”.

Básicamente, el proyecto ganador deberá incluir un sistema de fachada ventilada con placas de fibra de celulosa, más ligeras y resistentes a las inclemencias del tiempo. Pradales ha explicado que servirán para conseguir una fachada “más eficiente” desde el punto de vista energético.

El diputado ha asegurado que las obras no tendrán consecuencias negativas en el desarrollo de las actividades deportivas del recinto y que la Diputación reclamará “todos los costes” a las empresas adjudicatarias responsables de los errores detectados, ya que dos informes externos concluyen que el deterioro se debe a una mala elección del material y a problemas en el sistema de anclaje.

Pradales ha insistido que, en estos momentos, la fachada no representa ningún peligro para las personas, ya que “desde el minuto uno” se realizaron trabajos de aseguramiento de las placas y se colocó una visera de andamiaje de seguridad.

## 2 MILLONES EN LA TORRE DE MECÁNICA DE LA PEÑA

El diputado ha anunciado también una inversión en el edificio de la antigua empresa Mecánica de La Peña (Urduliz). A instancias de EH Bildu, Pradales ha confirmado que Urdulizko Industrialdeak –empresa participada por Sprilur y Azpiegiturak a partes iguales- adjudicó “a finales de 2015” la primera fase de los trabajos del edificio de oficinas por poco más de 2 millones de euros, obras que se iniciaron “a finales de julio” y que espera terminen “en verano de 2017”.

Las obras consisten en la rehabilitación de la fachada, cubierta, urbanización exterior, elementos comunes y la habilitación de la planta 4 del edificio para poder mostrar oficinas “piloto” una vez



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

acabada la obra. Pradales ha señalado que si se cumplen las previsiones de ocupación de empresas -“hay demandas concretas”- se iniciaría una segunda fase “no antes de finales de 2017” para rematar el edificio por dentro, que supondría una inversión adicional de 3 millones.

#### **BIZKAIA NO CUMPLIRÁ SU PLAN DE RESIDUOS POR LA HUELGA DE LA TMB**

La huelga que durante algo más de seis meses mantuvo la plantilla de la UTE TMB Arraiz ha originado que este año vaya a tratarse un tercio menos de residuos que en 2015. Así lo ha explicado la Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, en una comparecencia a petición propia ante las Juntas Generales en la que también ha señalado que este paro ha causado que durante medio año se haya incumplido el objetivo de vertido crudo cero.

Durante los meses que ha durado la huelga y hasta la restitución de la actividad total de la planta, hecho que ocurrió el 2 de noviembre, se han tenido que desviar 64.246 toneladas de residuos. De ellas, 54.904 toneladas se han llevado al vertedero de Jata y las 9.341 restantes se han trasladado a Zabalgardi. La previsión de la cantidad de residuos que se tratarán este año en TMB es de 112.167 toneladas, mientras que el año pasado se trataron en esta planta 176.000 toneladas. Esto supone que este año se va a tratar “un tercio menos” de toneladas que las tratadas en 2015.

#### **ENDURECIMIENTO DE LAS SANCIONES EN LAS “IDI PROBAK”**

Unzueta ha ofrecido también explicaciones sobre el nuevo Decreto Foral de 23 de agosto, de control de sanidad y bienestar en animales que afecta a las pruebas de deporte rural, el cual incorpora varios cambios “destacables”, según la diputada, como un registro específico para animales que participen en “idi probak”. La normativa otorga mayor autoridad al juez de cancha y establece un periodo de seis meses sin actividad deportiva para aquellas reses que quieran destinarse al consumo. Asimismo, el decreto “refuerza” los controles antidopaje y “endurece” las sanciones. Como medida “disuasoria” se prohíbe “hasta con 4 años” la participación en una prueba deportiva a aquellas explotaciones que compitan con animales dopados.

Preguntada por la oposición sobre si el decreto ha surtido efectos, Unzueta ha pedido un periodo de tiempo “más amplio” para hacer una valoración, aunque ha admitido que se han producido ya “paralizaciones cautelares” de algunas explotaciones.